

{ koaderno } **Laura Mintegi**

Nork agintzen du Ertzaintzan?

Nik esango nuke Luis Maria Retolazaren garaitik, geroko Eusko Gobernuek ez dutela egiatan kontrolatu Ertzaintza. Barne kontseilariak jendaurrean gauza bat esaten bazuten ere, pribatuan aitortzen zuten ez zutela erabateko aginterik polizia autonomikoa mende hartzeko.

Gaur egungo Ertzaintza 1980an sortu zen, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela, eta Luis Maria Retolaza izendatu zuten kontseilari Barne Sailerako. Aju-riagerraren konfiantzazko gizona zen eta berak jarri zuen Retolaza, ez Garaikoetxeak. Retolazak 11 urtez (1980-1991) izan zuen polizia autonomoaren kontrola, eta, Ogasunarekin batera, Ertzaintza izan zen Eusko Jaurlaritzaren zutabe nagusienetarikoa. Xabier Arzalluzek sarri esaten zuen moduan, «Estatua izan nahi baduzu bi gauza behar dituzu ezinbestean: dirua, eta dirua zainduko duen polizia, hau da, Barne Saila eta Ogasun Saila». Ar-
gi mintzo zen 25 urtez PNVren burua izan zen gizona. Datu objektiboa da PNVk behin baino gehiagotan partekatu duela go-
bernua (bipartitoak eta tri-
partitoak egin ditu PSE, IU
edo EA alderdiekin) eta
inoiz ez dituela kideen es-
kuetan utzi bi sailok: dele-
gatu zezakeen Gizarte Sai-
la, Hezkuntza, Kultura edo
Osasuna. Baina Barne Saila
eta Ogasun Saila beti egon dira alderdiaren eskue-
tan.

Jaurlaritzan PSE egon zen hiru urteetan izan ezik, Ertzaintzaren ardura beti izan da PNVren ardura-
pekoa. Eta, hala ere, ezin esan daiteke kontrolpean edu-
ki duenik.

Luis Maria Retolazaren ostean Juan Mari Atutxak hartu zuen barne kontseilaritza (1991-98), eta, antza, ezin izan zuen ebitatu polizia autonomikoak 311 aldiz torturatzeari atxilotuak. Urtebeteko tartearen ostean, non Jose Manuel Martiarena izan zen kontseilaria (1998-99), Javier Balzak hartu zuen kargua hamar ur-
tez (1999-2009). Hemerrotekara jotzea baino ez dago

ikusteko nolako zailtasunak zituen kontrolatzeko er-
tzainen jarduna, sarri kexu agertzen baitzen komuni-
kabideetan.

Rodolfo Ares izan da barne kontseilari ez naziona-
lista bakarra (2009-2012), eta eremu pribatuetan
azaltzen zuen Ertzaintzak ez ziola aitortzen autorita-
terik. Ares ez zen gai izan jakiteko nork egin zion tiro
Iñigo Cabacasi. Ez zuen asmatu korporatibismoari
aurre egiten, eta, arduradun politiko nagusia izanik,
ikerketa judizialaren eta herri ekimenaren jarduerak
erruz oztopatu zituen polizia babesteko epaitegiaren
eskaeretatik.

Nazionalistek gobernu berreskuratzearekin batera
berriz jarri zuten kontseilari nazionalista Barne Saile-
an. Estefania Beltran de Heredia (2012-2018) kontseila-
riari sindikatuak oldartu zaizkio eta, gainera, exijitzen
diote atzera bota dezala Parlamentuak hartu zuen
erabakia, gomazko pilotak berriz erabili nahi dituzte-

Xabier Arzalluzek sarri esaten zuen
moduan, «Estatua izan nahi baduzu bi
gauza behar dituzu ezinbestean: dirua,
eta dirua zainduko duen polizia, hau da,
Barne Saila eta Ogasun Saila»

lako. Ertzaintzak agindu behar al du Legebiltzarraren
gainetik?

Demokrazian, herritarrek dute burujabetza, herrita-
rrek hautatzen dute Parlamentua eta Parlamentuak
agintzen dio gobernuari zer-nolako polizia nahi duen.
Hori da eskema, hori da aginte-katea. Ertzainen arabe-
ra, ez, antza. Teorian, Ertzaintza «giza taldea da eta be-
re zeregina da herritar guztien eskubideak eta askata-
sunak babestea eta euren segurtasuna bermatzea
edozein delinkuentzia-motaren aurrean». Praktikan,
ordea, delinkuente moduan jokatu zuten herritarren
ordezkarien aurrean martxoaren 1ean Legebiltzarre-
an. Nork agintzen du? •